

Gender A B C

Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa



Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Lehen Hezkuntzarako
heziketa-programa

Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

Heziketa-modulu hau **APF – Associação para o Planeamento da Família** elkarteak landu dute GenderABC proiektuaren barruan.

Aurkibidea

Aurkibidea	2
I - atala: Sarrera	3
1. Xedea	3
2. Gai nagusiak	3
3. Gako-hitzak	3
4. Ikasketa-xedeak	3
5. Jardueren zerrenda	4
II - atala: Jarduerak	5
1. jarduera: <i>Neska eta mutila</i>	5
• Testuingurua	5
• Gidoia	5
• Jarraibideak	6
2. jarduera: <i>Aulki beroa</i>	7
• Testuingurua	7
• Gidoia	7
• Jarraibideak	9
3. jarduera: <i>Zer egin</i>	10
• Testuingurua	10
• Gidoia	10
• Jarraibideak	13
Saioaren egitura	14
Moduluen zerrenda	15

I - atala

SARRERA

1. Xedea

Modulu honetan sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen gaia landuko da, eta eztabaida zabalago batean txertatuko da, identitatearen, diskriminaziorik ezaren, dibertsitate mota guztien inklusibitatearen eta errespetuaren inguruan. Era berean, sexu-orientazioan eta genero-identitatean oinarritutako hainbat jazarpen-mota ere landuko dira.

2. Gai nagusiak

- Generoa eta Genero-identitatea
- Sexu-orientazioa
- Inklusioa eta dibertsitatea
- Generoan oinarritutako jazarpena
- Genero ez bitarra, genero ez konbentzionala
- Familia modeloen aniztasuna

3. Gako-hitzak

Sexua • Generoa • Genero-identitatea • Genero-rola
Genero-adierazpena • Genero-berdintasuna
Sexu-orientazioa • LGBTQI • Transgeneroa

Oharra: ikusi Glosarioan “Terminologia Transgeneroa”.

4. Ikasketa-xedeak

- Generoak femeninoa-maskulinoa edo emakumea-gizona (neska-mutila) dikotomia gainditzen duela ulertzea.
- Honako funtsezko kontzeptu hauek ulertzea: “sexu biologikoa”, “genero-identitatea” eta “sexu-orientazioa”
- Generoan oinarritutako diskriminazioa identifikatzea
- Familia-nukleo mota ezberdinak identifikatzea
- Norberaren genero-identitatearen eta sexu-orientazioaren hautemate argiagoa izatea eta sozializazio bereizgarriaren garrantziaz jabetzea
- Aurreiritzirik gabeko genero-adierazpenari balioa erantsi
- Identifikatu nola hobetu daitekeen nesken/mutilen eta/edo LGBTQI gazteen egoera

5. Jardueraren zerrenda

	 Jardueraren izena	 Helburu-adina	 Iraupena guztira	 Materialak	 Garrantzia ¹
1	Neska eta mutila	6-8 urte 9-12 urte	45 minutu	- Ahal izanez gero, gela nahiko handia zirkuluerdi formakoa lan egin ahal izateko (osoko bilkura batean moduan) - Kuxinak edo aulkiak - Ordenagailua - Bideo-proiektagailua - Audio-sistema - Pantaila-proiektagailua - USB bideoarekin (edo Interneteko konexio fidagarria-rekin)	★★★★
2	Aulki beroa	6-8 urte 9-12 urte	45 minutu	- Gela bat, nahiko handia, aulkiekin zirkulu bat egin ahal izateko - Aulki bat parte-hartzaile bakoitzarentzat + gehigarri bat	★★★★
3	Zer egin	9-12 urte	45 minutu	- Lanerako espazio zabal bat 4 hegalekin (edo 4 eremurekin) - Dilemen gaineko liburuxkak - Koloretako 4 kartel - Zinta itsasgarria	★★★★

¹ Jarduerak izarrekin sailkatzen dira (izar bat eta hiru izar bitarteko sailkapenarekin) garrantziaren arabera; adibidez "oso gomendagarria" den jarduera bat hiru izarrekin sailkatzen da.

II - atala

JARDUERAK

1. jarduera Neska eta mutila² ★★★★★



Jardueraren iraupena guztira
45 minutu
Prestatzea: 13
Egitea: 2
Segimendua: 30



- Materialak**
- ☐ Ahal izanez gero, gela nahiko handia zirkuluerdi formakoa lan egin ahal izateko (osoko bilkura batean moduan)
 - ☐ Kuxinak edo aulkiak
 - ☐ Ordenagailua
 - ☐ Bideo-proiektagailua
 - ☐ Audio-sistema
 - ☐ Pantaila-proiektagailua USB bideoarekin (edo Interneteko konexio fidagarriarekin)



Helburu-adina
6-8 urte
9-12 urte

→ TESTUINGURUA

Jardueraren helburua **da genero-identitatearen gaia lantzea**, eta aldi berean genero bitarraren onespeneren arriskuak nabarmentzea. Era berean, **patriarkatuaren eta genero-desberdintasunaren sustraiak ere aztertuko dira**.

→ GIDOIA



Eskatuko diegu parte-hartzaileei zirkuluerdi batean esertzeko, eta *Girl and Boy* bideo-klipa edo antzeko bideo laburren bat jarriko dugu. Ondo jarri behar ditugu aukeratutako bideoak honako gai hauek jorratzen dituela:

- Genero-identitatea
- Genero bitarraren onespenera
- Patriarkatua
- Generoen arteko desparekotasuna

² Bideo-klip honetatik egokitua: Marcia Mailoa, *Girl and Boy*; online eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=pF1j22x-yU8&feature=youtu.be>

→ JARRAIBIDEAK

Eztabaida zuzenduko dugu honelako gaietan oinarrituz:



- Zeri buruzkoa da, zuen ustez, bideoa?
- Nola sentitu zara bideoa ikustean? (Behatu parte-hartzaileek erreakzio desberdinak ote dituzten beren generoaren arabera)
- Bideoan azaltzen den egoeraren antzekoren bat bizi izan al duzu? Hala bada, zer nolako egoera?
- Zergatik dira pertsona batzuk neskak eta beste batzuk mutilak?
- Ba al dago alderik emakumeen eta gizonen rolen artean gizartean? Hala bada, zein dira alde horiek?
- Gizonek eta emakumeek aukera berdinak al dituzte?
- Mutil guztiek neskekin ateratzea al dute gustuko? Eta neska guztiek mutilekin ateratzea al dute gustuko? (Argitu “sexu-orientazio” eta “genero identitate” kontzeptuak)
- Zer da genero-diskriminazioa? Nola eragotz dezakegu hori?
- Zer ikasi duzu genero-identitateari eta sexu-orientazioari buruz? Lehen ez zenekien zerbait ikasi al duzu?

2. jarduera Aulki beroa³ ★★



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu
Prestatzea: 10
Egitea: 15
Segimendua: 20



Materialak

- ☐ Gela bat, nahiko handia, aulkiekin zirkulu bat egin ahal izateko
- ☐ Aulki bat parte-hartzaile bakoitzeko + gehigarri bat



Helburu-adina

6-8 urte
9-12 urte


→ TESTUINGURUA

Jarduera honen helburua da **genero-identitatearen eta sexu-orientazioaren inguruko gaien gainean eztabaida zabalagoa izateko** baldintzak sortzea.

→ GIDOIA



Eskatuko diegu denei aulki batean esertzea zirkuluan, eta aulki bat hutsik uztea.



Adierazpenak banan-banan irakurriko dira; ados dauden parte-hartzaileek aulkiz aldatuko dute; aldiz, ados ez daudenek dauden tokian eserita jarraituko dute. Parte-hartzaileek ezin badute erabakirik hartu, zutik jarri eta buelta bat emango dute.

³ Iturria: Europako Kontseiluaren *Gender Matters* eskuliburua (Genero-arazoak garrantzitsuak dira) (egokitua).

Adierazpenen adibideak:

- | | |
|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Emakumeek gizonen baino hobeto prestatzen dute janaria• Gizonak emakumeak baino kirolari hobeak dira• Balleta ez da mutilentzako zeregin bat• Neska argalak baino ez dira ederrak• Mutil altuak baino ez dira ederrak• Lagunen aurrean negar egiteak ahuldadea erakusten du• Neskak mutilak baino indartsuagoak dira• Mutilak neskak baino indartsuagoak dira• Neskak mutilak baino argiagoak dira• Mutilak neskak baino argiagoak dira• Mutilek neskek baino jokabide okerragoa dute• Neskek mutilek baino jokabide okerragoa dute• Gizonentzat onargarria da beste gizon batzuk musukatzea• Emakumeentzat onargarria da beste emakume batzuk musukatzea | <ul style="list-style-type: none">• Emakumeentzat onargarria da gorputzeko ileak ez kentzea• Gizonentzat onargarria da gorputzeko ileak ez kentzea• Neskentzat onargarria da galtzak janztea• Mutilentzat onargarria da gonak janztea• Gizonentzat onargarria da takoi altuko oinetakoak eramatea• Neskek maitasun-harreman baten ekimena mutilek hartzea espero dute• Mutilentzako naturala da kontrolatzea eta zuzentzea• Gizonen presidentea bat hobe da emakumeen presidentea baino• Senar batek ez luke emazteak baino diru gutxiago irabazi behar• Ez duzu erabakitzen norekin maiteminduko zaren• Ez da txarra bi ama izatea• Ez da txarra bi aita izatea• Jende guztiak eskubide berdinak izan beharko lituzke |
|--|--|

Parte-hartzaile zaharragoen kasuan, gai konplexuagoak erantsi daitezke, hala nola:

- Heterosexuala denak heterosexuala izatea aukeratzen du
- Gayek gay izatea aukeratzen dute
- Transgeneroa denak transgeneroa izatea aukeratzen du
- Gayek eta lesbianek ezkontzeko eskubidea dute
- Gayek eta lesbianek seme-alabak adoptatzeko eskubidea dute
- Transgenero direnak ezkontzeko eta seme-alabak adoptatzeko eskubidea dute
- Nire lagunak esango balit homosexuala dela (neska edo mutila), nire laguna izaten jarraituko luke
- Nire lagunak esango bazidan transexuala dela (neska edo mutila), nire laguna izaten jarraituko luke
- Nire sexu bereko lagunak esango balit maite nauela, haren laguna izaten jarraituko nuke
- Nire aurkako sexuko lagunak esango balit maite nauela, haren laguna izaten jarraituko nuke
- Denok berdinak gara

→ JARRAIBIDEAK

Adierazpen guztiak irakurriko ditugu berriz ere banan-banan, eta azalduko dugu adierazpen horiek sexu-orientazio eta genero-identitate ezberdinak lantzen dituztela, eta parte-hartzaileei eskatzen zaiela kategoria biak identifikatzea

Eztabaida bat zuzenduko dugu adierazpenen aurrean sortutako erreakzio ezberdinen gainean, eztabaidagarrienak nabarmenduko dituzte eta hainbat kontzeptu argituko dituzte.

Azken txandan, honako galdera hau egingo dugu:

- Zer egin dezakezu genero eta/edo sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioa prebenitzeko?

Labur-labur azalduko diegu parte-hartzaileei zer lege esparru bete beharko luketen, eta nabarmenduko dugu generoan eta/edo sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioa legez kanpoko dela hainbat herrialdetan, Europar Batasuneko estatu-kideetan barne

3. jarduera Haurren eskubideen grafia⁴ ★★☆☆



Jardueraren iraupena guztira

45 minutu

Prestatzea: 10

Egitea: 20

Segimendua: 15



Materialak

- ☐ Lanerako espazio zabal bat 4 hegalekin (edo 4 eremurekin)
- ☐ Dilemen gaineko liburuxkak
- ☐ Koloretako 4 kartel
- ☐ Zinta itsasgarria




Helburu-adina

9-12 urte


→ TESTUINGURUA

Jarduera honen helburua **da sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen gaia lantzea**, eta aldi berean, parte-hartzaileen ulermena lantzea ikus dezaten hautemandako arazoak modu seguruan eta eraginkorrean konpontzeko hainbat aukera existitzen direla.


→ GIDOIA



Parte-hartzaileei eskatuko diegu gela erdian zutik jartzeko, eta azaldutako dilemen gainean duten jarrera azaldu dezatela, beren iritzia arabera gelako izkina bat aukeratuz.



Lehenengo dilema irakurri eta aukeran dauden izkinak zein diren azalduko dugu.



Denek izkina bat aukeratzen dutenean eta hara joaten direnean, parte-hartzaileei esango diegu beren artean eztabaidatzeko; ondoren, izkina bakoitzeko parte-hartzaileei galdetuko diegu ea zergatik aukeratu duten hor jartzea. Aurkeztutako dilema bakoitzerako ekintzak errepikatuko dituzte.

Dilemen adibideak:

Naroaren dilema

Naroak 9 urte ditu. Eskolako mutilik atsegingarrienak 11 urte ditu. Ez dute elkar ezagutzen, baina Naroak benetan du gustuko. Egun batean, Naroa berari begira ikusi zuen mutilak, eta Naroa berarekin elkartzera gonbidatu zuen eskolako atsedenaldi batean, ezkutuko toki batean.

Zer egin beharko luke Naroak?

1. EZETZ esan
2. DBAIETZ esan
3. BAIETZ esan, baldin eta toki ireki publiko batean biltzen badira
4. Beste zerbait (izkina irekia)

Jonen dilema

Jonek 9 urte ditu. Eskolako neskarik atsegingarrienak 11 urte ditu. Ez dute elkar ezagutzen, baina Jonek benetan du gustuko. Egun batean, Jon berari begira ikusi zuen neskak, eta Jon berarekin elkartzera gonbidatu zuen eskolako atsedenaldi batean, ezkutuko toki batean.

Zer egin beharko luke Jonek?

1. EZETZ esan
2. BAIETZ esan
3. BAIETZ esan, baldin eta toki ireki publiko batean biltzen badira
4. Beste zerbait (izkina irekia)

Beñaten dilema

Beñatek 11 urte ditu. Eskolako mutilik atsegingarrienak 13 urte ditu. Ez dute elkar ezagutzen, baina Beñatek benetan du gustuko. Beñatek uste du mutil horrekin maitemintzen ari dela, nahastuta sentitzen da, eta ez dio ezer esan familiari ezta bere lagun minenei ere. Egun batean, Beñat berari begira ikusi zuen mutil atsegingarriak, eta Beñat berarekin elkartzera gonbidatu zuen eskolako atsedenaldi batean, ezkutuko toki batean.

Zer egin beharko luke Beñatek?

1. EZETZ esan
2. BAIETZ esan
3. BAIETZ esan, baldin eta toki ireki publiko batean biltzen badira
4. Beste zerbait (izkina irekia)

Nasrineren dilema

Nasrinek 11 urte ditu. Bere ikasgelako neska bat du gustuko eta berarekin atera nahiko luke. Hala ere, ez dago ziur neska horrek bere proposamena onartuko ote duen.

Zer egin beharko luke Nasrinek?

1. Bertan behera utzi eta neska horretaz ahaztu
2. Neska hori hobeto ezagutzen saiatu, eta egiaztatu ea antzeko zerbait sentitzen duen, berak sentitzen duena azaldu aurretik
3. Eskolako aholkulariarekin bilera egin eta aholkua eskatu
4. Beste zerbait (izkina irekia)

⁴ Iturria: Europako Kontseiluaren *Gender Matters* eskuliburua (Genero-arazoak garrantzitsuak dira) (egokitua).

Alexisen dilema

Alexisek 11 urte ditu, eta neska transgeneroa da (mutil jaio zen eta beti identifikatu izan du bere burua neska moduan). Mutil bat du gustuko bere gelan eta berarekin atera nahiko luke. Hala ere, ez dago ziur mutil horrek bere proposamena onartuko ote duen. Mutilak onartuko balu, beldur da beste ikasleek mutilari gay deitzen hasiko ote diren.

Zer egin beharko luke Alexisek?

1. Bertan behera utzi eta mutil horretaz ahaztu
2. Neska hori hobeto ezagutzen saiatu, eta egiaztatu ea antzeko zerbait sentitzen duen, berak sentitzen duena azaldu aurretik
3. Eskolako aholkulariarekin bilera egin eta aholkua eskatu
4. Beste zerbait (izkina irekia)

Eñauten dilema

Eñautek 9 urte ditu. Bere gurasoak banatu egin ziren haurra zenean, bere aita beste gizon batekin maitemindu baitzen. Geroztik, aita eta bere mutil-lagun berria elkarrekin bizi dira; gaur, Eñauten ama ere beste mutil-lagun batekin bizi da. Eñauten familia-nukleoa honako hauek osatzen dute: amak, aita eta aitaorde biek. Aitaorde biek adeitsuki tratatu izan dute beti Eñaut. Eñauti ez dio axola amak eta haren mutil-lagunak eskolara edo eskolako jardueretan parte hartzea eramatea; baina lotsatu egiten da aita eta aitaren mutil-lagunak laguntzen diotenean. Eskolako kideek berari eta bere familiari burla egingo ote dioten beldur da. Egoera horrek bere autoestimuari eta familiarekin duen harremanari eragiten dio.

Zer egin beharko luke Eñautek?

1. Bere aitarekin egoteari uko egin?
2. Bere aitaren mutil-lagunarekin egoteari uko egin?
3. Eskolako aholkulariarekin bilera egin eta aholkua eskatu
4. Beste zerbait (izkina irekia)

Josuren dilema

Josuk 9 urte ditu. Bere familia-nukleoa bi amek osatzen dute. Bere ama biak bera jaio aurretik ezkondu ziren, eta haurtxoa zenean adoptatu zuten bera. Josuk bere ama biak maite ditu. Orain dela gutxi, Josuk bere familiaz hitz egin zuen eskolako proiektu batean, eta bere eskola-kideak berari eta bere familiari burla egiten hasi ziren. Geroztik, Josuk lagunak galdu ditu eta bakarrik esertzen da eskolako atsedendietan. Egoera hori eragin sakona sortzen ari da bere autoestimuan.

Zer egin beharko luke Josuk lehenik?

1. Bere eskola-kideekin hitz egin.
2. Bere amekin hitz egin
3. Eskolako aholkulariarekin bilera egin eta aholkua eskatu
4. Beste zerbait (izkina irekia)

Dilema horiek egokitu egin beharko genituzke lanean diharduten taldearen arabera, eta parte-hartzaileen istorio pertsonalak saihestu beharko genituzke.

→ JARRAIBIDEAK

Eztabaida zuzenduko dugu honelako gaietan oinarrituta:



- Zer iruditu zaizue? Nola sentitu al zara jarduera egitean?
- Erraza edo zaila izan da erabakia hartzea?
- Harritu egin al zara besteek aipatutako zerbaitekin?
- Pertsonaia horietako inorekin enpatiarik sentitu al duzu?
- Mutilek eta neskek aukera berdinak al dituzte?
- Pertsona transgeneroek aukera berdinak al dituzte?
- Mutil guztiek neskekin ateratzea al dute gustuko? Eta neska guztiek mutilekin ateratzea al dute gustuko? (Argitu "sexu-orientazio" eta "genero identitate" kontzeptuak)
- Zerk egiten du familia bat familia bat izatea?
- Zenbat familia-nukleo mota ezagutzen dituzu?
- Dilema bat duzunean, nori eskatzen diozu aholkua (gurasoei, aitona-amonei, neba-arrebei, lagunei, auzokoei, irakasleei, aholkulariei, inori ere ez)?
- Gazteek non lortu dezakete laguntza horrelako dilemen aurrean?
- Zer egin dezakegu generoan edo sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioa prebenitzeko?

Nabarmenduko dugu dilema horiek sexu-orientazio eta genero-identitate ezberdinak bistaratzen dituztela, eta parte-hartzaileei eskatuko diegu horiek identifika ditzaten; ondorioz, kontzeptu eta mota nagusien arteko argibideak emango ditugu. Horrez gain, labur-labur azalduko diegu parte-hartzaileei zer lege esparru bete beharko luketen, eta nabarmenduko dugu generoan zein sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioa legez kanpokoa dela hainbat herrialdetan, Europar Batasuneko estatu-kideetan barne.

Saioaren egitura

Moduluaren izena: Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

Ikastetxea: _____

Irakaslea, arduraduna: _____

Ikasgela (Ikasturtea eta data): _____

Parte-hartzaileen kopurua: _____

Data: ____/____/____ Iraupena: _____

Aukeratutako jarduerak: _____

Materialak (berrikusiak): ☐ bai ☐ ez

OHARRAK:

Gender ABC proiektuaren

MODULUEN ZERRENDA

Modulu
Lehen
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

Modulu
Bigarren
Hezkuntzarako
heziketa

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria

Dokumentu
laguntzaileak

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra



Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



AIDOS
ASSOCIAZIONE ITALIANA
DONNE PER LO SVILUPPO



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua